

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

UDAL AZOKAN ZERBITZUAK EMATEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua: OINARRIA ETA IZAEREA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrira, udal honek udal azokan zerbitzuak emateagatik tasa eskatuko du.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA

Tasaren egitate ezargarria da zerbitzuak ematea eta administrazio jarduerak egitea, besteak beste, honako honeek:

- Azokako postuen administrazio emakidak.
- Postuak eskualdatzeko baimenak.
- Postuak esleitzea titularraren heriotza dela eta.
- Osasun kontrola eta zerbitzua.
- Guztion erabilerako aldeak mantentzea.
- Aldi baterako postuak jarteko lizentziak eta beste aprobetxamendu batzuk.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Tasaren subjektu pasiboak dira, postu finkoen emakidadunak diren pertsona fisikoak edo juridikoak, aldi baterako postuak hartzen dituenak eta eskualdaketak eskatzen dituenak.

4. artikulua: TASA KUOTEA

1.- Honako modulu mota honeek kontuan hartuta kudeatuko da tasa:

- a) 1. motako moduluak: 9,61 m² ko postu finko itxi bakotxa, 1etik 37rainoko zenbakiakaz identifikatuak.
- b) 2. motako moduluak: Eskailera azpiko postu finko itxi bakotxa, 38 eta 39 zenbakiakaz identifikatuak.
- c) 3. motako moduluak: Mahai jarraituko postu finko bakotxa, 1etik 16raino zenbakiakaz identifikatuak.
- d) 4. motako moduluak: Biltegi erabilerarako zutabe tarteko azalera (3,15 x 1,83 = 5,76 m²)
- e) 5. motako moduluak: Hozkailu erabilerarako zutabe tarteko azalera (3,15 x 1,83 = 5,76 m²)

2.- Tasa kuotea ondorengo epigrafeetan jarritako zenbatekoa edo tarifa aplikatzearen emaitza izango da:

1. EPIGRAFEA: Moduluen hileko zenbatekoak:	2021 (€)
1.1.- 1. modulua	107,69 €
1.2.- 2. modulua	95,77 €
1.3.- 3. modulua	53,87 €
1.4.- 4. modulua	10,79 €
1.5.- 5. modulua	10,79 €
2. EPIGRAFEA: Mahaien erabilerea metroko egunean:	
2.1.-Inguruko baserrietan ekoiztutako produktoak eta produktu ekologikoak saltzea	1,50 €
2.2.-Jatekoak diren gainerako produktuak	3,00 €
2.3.-2.1 edo 2.2 epigrafeetako produktoak ez diranak edo beste sektoreetako produktoak saltzea (jatekoak ez direnak)	6,40 €
3. EPIGRAFEA: Azokako postuen 5. urterako emakidak hilero	
3.1.- 1. modulua	25,00 €
3.2.- 2. modulua	21,91 €
3.3.- 3. modulua	10,29 €
3.4.- 4. modulua	2,59 €
3.5.- 5. modulua	2,59 €
4. EPIGRAFEA: Bizien arteko eskualdaketak:	
4.1.- 1. modulua	1.049,13 €
4.2.- 2. modulua	925,15 €
4.3.- 3. modulua	430,86 €
4.4.- 4. modulua	107,73 €
4.5.- 5. modulua	107,73 €
5. EPIGRAFEA: Postuko titularraren heriotzea dala-eta, jaubetzea eskualdatzea:	
5.1.- 1. modulua	927,02 €
5.2.- 2. modulua	812,58 €
5.3.- 3. modulua	381,46 €
5.4.- 4. modulua	95,38 €
5.5.- 5. modulua	87,56 €
6. EPIGRAFEA: Hutsik dagozan postuen aldi baterako lizentzia	
6.1- Aldi baterako lizentzia	30,00 €
7. EPIGRAFEA: Hutsik dagozan postuen aldibaterako erabilerea egunean	
7.1- 1. modulua - postu finkoa	8,80 €
7.2- 2. modulua - eskilara azpiko postu finkoa	7,83 €
7.3- 3. modulua - mahai metalikoa	7,00 €

5. artikulua: SORTZAPENA

Tasaren sortzapena kasuz-kasu honako hau izango da:

- a) 1. epigrafeko hileroko kuota: hileko lehen egunean.
- b) 2., 4., 5., 6. eta 7. epigrafeetakoak: erabilerea, eskuz aldatzea edo lizentzia eskatzen den momentuan.
- 3. epigrafearen tasaren sortzapena udal azokako postuen emakida administratiboa esleitzen denean emango da. Postuen emakidak 5 urteroko iraupena izango dute, eta hileroko ordaindu beharko dira kontzesioa egiten denetik. Postuaren kontzesioaren 3. epigrafea eta esleitutako postuaren errentamenduagatik hileroko ordaindu beharreko 1. epigrafea batera ordaindu beharko dira hileroko lehen egunean, errola bidez.

6. artikulua: KITAPENA ETA ORDAINKETEA

- a) Behin era bateko edo besteko emakida eginda, hilean bertan erroldan alta emango zaio esleipendunari eta hileroko errolda bidez errezibozko kitapenak egingo dira.

1. epigrafearen errentamenduaren hileroko kuota emakidaren esleipen datatik ordaindu beharko dira.

Azokako postuen emakida berriak esleitzen direnean, 3. epigrafean jasotako ordainketaren hasiera emakidaren esleipen data izan ordez, emakida esleitzen denetik 6 hilabete pasa eta gero izango da. Emakida berri honengatik ordaindu beharreko tasaren kuotaren zenbatekoa guztira ez da aldatuko, baina hileroko kuotak hauexek izango dira:

3. EPIGRAFEA: Azokako postuen 5. urterako emakidak hileroko	2021 (€)
3.1.- 1. modulua	27,78 €
3.2.- 2. modulua	24,34 €
3.3.- 3. modulua	11,43 €
3.4.- 4. modulua	2,88 €
3.5.- 5. modulua	2,88 €

Emakida berria esleitzen den datatik 6 hilabete horien barruan postuaren jarduerari baja ematen bazaio, emakidaren 3. epigrafeagatik ordaindu beharreko eta zorretan dauden diru-kopuruak 4.2. artikuluan ageri diren modura ordaindu beharko dira.

- b) 2. epigrafeko erabilerei jagokezan eguneko kuotak azokako arduradunak kobratuko dauz zuzenean erabilera egunean.

- c) 4., 5., 6. eta 7. epigrafeetako kuotak Errenta sailak kitapena eginda jakinarazoko jake zergadunei.